

Adostasunik ez, udal gobernuaren eta Lurgatzen artean

Amasa-Villabonako udal gobernuaren eta Lurgatz talde feministaren arteko talka areagotzen ari da; azken osoko bilkuran bien arteko desadostasunak eta tentsioa agerian geratu ziren //4

«Gustura aritu naiz Europako iraupen eskiko probetan»

MIKEL PLAZAS
ESKIATZAILEA

Berastegiko eskiatzailea Espainiako selekzioarekin aritu da Europa mailako lasterketetan; orain datozen hilabeteetako Espainia mailako probetan du burua //7

Biharko astekaria
2018ko Urtekaria
izango da eta
'Tolosaldeko Ataria'–
ren hurrengo alea
urtarrilaren 3an
argitaratuko dugu.



**Eranskailuak,
gaikako
bilketan
hobetzen
jarraitzeko**

Tolosaldeko
Mankomunitateak
edukiontzi marroietan zer
bota behar den gogoratu
nahi du; ikuskapenak
egingo dituzte Ibarran // 5



MIRAOLA

«Helburua da taldean hezteak, ikastea eta disfrutatzea»

IBON ARTOLA ZUMARDIAKO KOORDINATZAILEA

Zumardiak hainbat ekintza eskaintzen ditu urtean zehar. Natura, hezkuntza eta kirola dira elkartearen ardatzak, beti ere, lehiakortasun basatia baztertuz. Iraupen eskiko eskola iraunkorra eta Olentzeroren Basoa dira azken apustuak //3



Inmakulada eta Juan Carlos Belzak gurasoen negozioari heldu zioten, eta 40 urte eman dituzte Zerkausi kaleko dendan. I. URKIZU ARSUAGA

Aranburu egunkari dendak behin betiko itxiko du pertsiana, abenduaren 28an, 40 urteren ondoren; egunotan, denda agur hitzen zaparra etengabea da.

Nostalgia egunkari paperetan

Itzea Urkizu Arsuaga

Egunotan, iraganaldiko aditz denbora sekula baino gehiago entzun liteke, Tolosako Zerkausia kaleko Aranburu egunkari dendan. Agur eta despedida hitzak, oroitzenak eta eskertzak, lau hamarkadako denda bati pertsiana behin betiko itxi aurretik.

Gurasoek ekindako negozioari eutsi, eta egunkari denda bizimo-

du egin dute Inmakulada eta Juan Carlos Belza anai-arrebek: «Zerkausi kalean 40 urte inguru daramatzaguz. Gurasoek, aurretik, kiosko bat zuten Trianguloa plazan; estankoa zen, eta egunkariak ere saltzen zituzten. Garai bateko Eskolapioak eraitsi zituztenean, lokal hau erostea erabaki zuten eta, orduz geroztik, hemen aritu izan gara».

Inmakulada Belzak oraindik gogoan du 1983ko uholdeetan dendako ura ateratzen aritu zire-

nekoa, bezeroen laguntzaz: «Urte asko pasatu dira, bai!». Eta, erretiroa hartzea erabaki duenean, ziklo bat amaitzea erabaki dute anai-arrebek: «Urte asko izan dira, eta lan hau oso-oso gogorra da; erre egiten du bat».

Egunkari eta aldizkari denda bat baino askoz ere gehiago izan baita, urtetan, Aranburu: «Dendako salmentaz gain, banatzaile lanak ere egiten ditugu. Denda goiz eta arratsalde zabalik izaten da eta anaia, egunero, 05:00etan jaikitzen da, herri txikietako okin askok gure dendatik hartzen baitituzte egunkari eta aldizkariak. Eta horrela urte osoan, izan asteburu, izan zubi».

Bihar izango da azkena; betiko itzaliko dituzte Aranburu dendako argiak. Eta, nolabait, informazioa kontsumitzeko modu baten

itzaltzea ere irudikatuko du itxierak. Pena sentitzen dute, bai, eta egunotan jende asko bertaratu da euren gaitasuna, triste: «Nik esaten diet astebeteko pena dela, jendea segituan ohituko dela egunkaria beste nonbait erosten».

Baina, hori da kontua: denda baino gehiago, Aranburu jende askoren elkargune izan dela hamarkadaotan. Bezperako egunkaria erostea ahaztu zaionaren heldulekua, hurrengo egunean albiste zaharkituak erosteko; edo Zerkausi-ko baserritarren biltegitxoa, poltsak une batez nonbait uzteko. «Tolosan paper fabrika asko ziren garaian, tertulia gune bilakatzen zen gure denda, goizean goiz eta arratsaldean. Langileak 05:00ak aldera pasatzen ziren egunkari bila eta, lantegira joan aurretik, gure aitarekin eta anaiarekin hiz-

ketan aritzen ziren, hartaz eta hontaz; eta, berdin, arratsaldean lanetik irtendakoan ere».

Esan gabe doa, beraz, zer-nola-ko gertutasuna izan duten belzatarrek, bezeroekin: bizi oso bat erakusmahaiaren alde banatan. Jende asko ezagutu dutela diote, eta tarteka psikologo lanak egitea ere egokitu zaiela: «Pazientzia izan behar da batzuetan, eta terapeuta izaten ere asmatu, baina gustura egin izan dugu. Guk betiko jendea ezagutu izan dugu hemen, Tolosan denok baitugu denon berri. Hainbat bezerorekin konfiantza handia sortu dugu dendaren aitzakian eta, benetan diot, jendea malkotan atera dela egunotan, itxieraren harira».

PAPERA URTZERA DOANEAN

40 urteotan izugarri aldatu da egunkarien salmenta; hala diote Inmakulada eta Juan Carlos Belzak: «Orain, 40 urtetik beherako inork ez du egunkaririk erosten, kirol kazetaren bat ez bada. Komunikabideak Internet bidez jarraitzen dituzte belaunaldi berriek, eta jendeak egunkaria tabernan eta kafetegietan irakurtzeko ohitura du. Erromantikoren bat geratuko da, bai, baina galtzen ari den zerbait da». Akaso horregatik, Inmakulada Belzak barre txikiak dio, «momentu onean» utziko dutela denda.

Zalantzarik ez da: albisteak ordubete zaharkitzen diren garaioetan, kazetaritzak bezainbesteko erronka dute egunkari salmentan aritzen direnek ere, informazio kontsumo berrietara egokitze horretan.

Horren harira, Juan Carlos Belzak ondo gogoan du zein izan den, sekula egunkari gehien saldu duten eguna: «Realak lehenengo liga irabazi zuenean, 1980-1981 denboraldian, izugarria izan zen. Gogoan dut, dendatik ilarak buelta ematen ziola Eskolapioen eraikinari. Garai hartan, *El Diario Vasco*ren 5.000 ale saldu genituen!».

Kirolari lotutako loriekin batera, atentatuak nahiz eskelak erakarri izan dute jende gehien dendara eta, elkarrizketan barrena etorri zaie gogora, Espainiako loteriarren egunean aspaldi gertatzen zena: «Lehen, abenduaren 22an, bi egunkari argitaratzen zituzten zenbait kazetak: goizekoa eta arratsaldekoa, loteriarren emaitzekin. Jendea zain izaten zen emaitzak kontsultatzen».

Momentuz, Zerkausi aldame-neko lokalean ez da egunkari pila goiztiarrik ikusiko; inork ez dio negozioari jarraipenik eman-go. Nostalgia eta oroitzapenak, ordea, betirako izango dituzte, egunkari paperetan bilduta.



IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Pertsona bat behar dugu etxeko lanak egin eta bi pertsona zaintzeko. Tolosa erdirako

izango litzateke, astelehenik larunbatera eta jornada osoan. Urtarilean bertan hasteko. Interesatuak deitu zenbaki honetan: 600 56 20 73.



MIKEL IRAOLA

«Zumardian inor ez da baztertzen bere mailagatik»

IBON ARTOLA ZUMARDIAKO KOORDINATZAILEA

Duela urte eta erdi sartu zen Zumardia elkartearen Ibon Artola mendi gidaria, eta egun koordinatzaile lanetan aritzen da. Elkartearen jarduna aztertu du 'ATARIA'-n.

Mikel Iraola Tolosa

Duela bi urte eta erdi burutu zituen lehen jarduerak Zumardia elkarteak, eta geroztik antolatu dituen ekintzen bueltan 1.500 pertsona inguru ibili dira. 200 bazkide dira, gainera. Atzeko lanetan, berriz, 20 lagun inguruko taldea dago, eta horien artean da Ibon Artola anoetarra.

Berrienetik hasiz, bi proiektu potolo jarri dituzue abian hila-bete honetan: Olentzeroren Basoa eta iraupen eskiko eskola iraunkorra. Zeri erantzuteko sortu dituzue?

Norbanako batzuk egindako proposamenetatik abiatutako bi proiektu dira. Eski eskolaren kasuan, esaterako, aurrez antolatu izan ditugu ikastaroak. Baina aurreko urteetako ikasle batzuk maila bat badutela ikusita, beste zerbait behar zuten; jarraipen

gehiagorekin aritzeko aukera behar zuten. Eguberriko oporrez gain, urtarileko eta otsaileko asteburu askotan joango dira, taldean.

Olentzeroren Basoaren kasua bereziagoa da.

Orain arte egindakoaren aldean apurtzaileagoa da. Taldeko kide bati bururatu zitzaion, ideia partekatu zuen eta begi onez ikusi genuen. Zalentzaren bat ere egon zen hasieran, proiektuak Zumardiaren barruan lekua ote zuen-edo. Baina, azken finean, naturarekin lotura estua du. Basoan gaudela, eta lantzen ditu beste hainbat elementu: eguzkia, iluntasuna, sua, solstizioa... Horien barruan balio batzuk transmititzen ditu basoak. Bistakoa da arrakastatsua izan dela. Txanda asko bete dira, eta Tolosaldeaz gain, Lezo edo Azpeititik ere iritsi dira bisitariak. Denbora oso gutxi izan dugu, bai-

na batekin eta bestearekin hitz eginda lortu dugu. Aipatzekoa da jende askok emandako laguntza.

Natura, hezkuntza eta kirola dira Zumardiaren hiru zutabe nagusiak. Zergatik uztartu hirurak?

Naturaz kanpoko kirolak bultzatzen dira gehienbat. Kirola eta natura uztartzen zituen eskaintzan gabezia zegoen hemen inguruan. Bestalde, beste garrantzia bat eman nahi nahi izan genion hezkuntzari, ondo pasatzea eta disfrutatzea erdigunean jarritz. Maila bat ez baduzu, zenbait kirolekin taldetik kanpo geratzen zara. Nik neuk bizi izan nuen hori. Beste eragileak gutxietsi gabe, guk beste ukitu bat eman nahi izan genien balioei, lehiakortasun horrekin puskatuz. Inor ez da baztertzen bere mailagatik.

Lehiari ere ez diogu uko egiten. Hau da, ni trail eskolako ardura duna naiz, eta ume batek esaten badit lasterketa batean parte hartu nahi duela, ez diot ezezkorik esango. Baina lehiaketa beste modu batera azaltzen saiatzen gara. Noski laguntzen diegula teknikoki hobetzen, maila bat hartzen... baina irabaztea ez da garrantzitsuena. Helburua da taldeko giroan hezte, ikastea eta disfrutatzea.

Lehiakortasunaren kontzeptu hori barneratzea kostatzen zaie ikasleei?

Trail eskolako adibidearekin jarraituz, askoren erreferentzia Kilian Jornet da. Eta saiatzen gara horri garrantzia kentzen. Gure helburua da haur eta helduek mendiaz disfrutatzea. Demagun, taldeko kide batek egunen batean ezin gaituela segi. Bada itxaron egiten diogu. Guztiok batera joaten ikasten dugu. Mendizale-tasunari lotuta dauden balio horiei ematen diegu garrantzia: laguntasuna, talde izaera...

Lehiakortasun dosi txikiren bat ere ematen diegu. Urtean bitan soilik saiatzen gara Uzturrera ahalik eta azkarren igotzen. Baina baldintza bat dute: denak elkarrekin joatea. Batzuk hobeto moldatzen dira aldapan gora, beste batzuk beheara. Beste batzuk ikusten dute bakarrik joango balira azkarrago joango liratekeela. Baina ikasi behar dute batera joaten. Eta horrela talde giroa lortzen da, eta disfrutatzeak garaipenak baino lehentasun gehiago izatea.

Natura eta kirola uztartzen dituzten beste eragile batzuk badira: mendi taldeak, esaterako. Baina kezka azaldu izan dute, belaunaldi aldaketa bat

emateko dituzten zailtasu-nengatik. Zumardia izan daiteke eragile bat aldaketa hori sustatzen lagundu lezakeena?

Izan daiteke, bai. Aspaldian egin ez zen zerbait egin dugu aurtengo udan, Aralarko zeharkaldia, 12-14 urte bitarteko haurrekin. Horrelako gauzak gaztetatik bultzatzeko tresna garrantzitsu bat izan daiteke Zumardia.

Zer-nolako papera dute gurasoek balio horiek guztiak uztartzerakoan?

Aipagarria da bazkide kopurua handituz doala, eta askok familia moduan ematen dute izena. 50

«Lehiakortasunarekin puskatu nahi izan dugu. Disfrutatzea eta ikastea dira helburu nagusiak»

bat familia izango dira Zumardian. Guraso askori horrek erakartzen die. Batzuk badaramatzate urteak horrelako gauzak eginez, kultura hori ezagutzen dute. Baina beste batzuk ez. Eta parte hartzen dute ekintzetan: piraguan, eski ikastaroetan, trail eskolan... Laguntza emateko ere prest agertzen dira. Aurrez jarre-positibo bat dago, eta konfiantza giroa. Eta giro horretan haurrak hezte oso ona da.

Hortaz, ez dago adin mugarik Zumardiaz gozatzeko.

Ez adin mugarik, ezta gaitasun mugarik ere. Ikastaroetan bada 40 urteen bueltako jendea. 60 urteko jendea ere animatzen da mendi irteeretara. Zergatik eta bere lagunek mendira joateari utzi diotelako eta bakarrik geratu delako. Trail eskolan, adibidez, bada jendea inoiz mendian korrika ibili ez dena. Fisikoki gutxieneko maila bat behar da, baina ilusioa jarritz gero, guk oinarritzko gauzeekin laguntzen dugu. Goza dezaten ahalegintzen gara.

Etorkizunera begira zein proiektu dituzue eskuartean?

Orain arteko batzuek jarraipena izango dute: baratze eskolak, espeleologiak... Baina izango dira berrikuntzak. Alpinismoko ikastaroak sortu nahian gabiltza, eta hor barruan, zeharkaldiko eskia edo izotz eskalatzea. Uda partean piragua zeharkaldiak egingo ditugu, Josu Iztueta-aren laguntzarekin, Gipuzkoako ibaietan barrena. BTT eskola bat ere sortu nahi dugu. Aurrez aipatu dugun Aralarko 4-5 eguneko zeharkaldia, gazteez gain, helduekin ere egingo da. Eta noski, proposamen berriak pozik hartuko ditugu. Jendeak interesa azaltzen duen bitartean, guk lanean jarraituko dugu.

Lurgatzen eta udal gobernuaren arteko talka, osoko bilkuran

Amasa-Villabonako Udalak, oraingoz, ez dio erantzun talde feministak lokal bat erabiltzeko egindako eskaerari eta bi aldeen arteko elkarrizketak etenda daude joan den astetik

Jon Miranda Amasa-Villabona

Harremana aspalditik dago gaiztotuta EAJko udal gobernu taldearen eta Lurgatz talde feministaren artean. Azkeneko asteotan oraindik ere gehiago berotu da giroa eta aurreko osteguneko osoko bilkuran lehertu egin zen tentsioa. Hainbestearino, non Maite Izagirre alkateak hitza ahoan zutela utzi zituen talde feministako kideak, bilkura bukatutzat emanez eta aretoa utziz.

Galde erreguen txandan hartu zuten hitza Lurgatzeko kideek. Abenduaren 14an gauzatu zuten ekintzari egin zioten erreferentzia. Udal bando baten itxura zuen idatzia banatu zuten herriko atari guztietan, hilabeteotako eskakizunari buruz hitz egiteko –euren ekintzak garatu ahal izateko Kale Nagusiko 38. zenbakian dagoen eta udalarena den lokala erabiltzea–. Feministek osoko bilkuran adierazi zuten «irudimena» erabili nahi izan zutela euren aldarria zabaltzeko eta herritarren arreta bereganatzeko, eta horregatik ulertezina egiten zaiela udal gobernuak «bando faltsutzat» edo «dokumentu publiko baten faltsifikazioztat» hartzea idatzi hori.

Abenduaren 19an zabaldua-

ko ohar batean egin zituen adierazpen horiek Villabonako Udalak, eta besteak beste, Pauli Olano eta Maite Ortiz hartzen zituzten Lurgatz taldeko burutzat. Haserrea piztu du horrek feministen artean eta abenduaren 20ko osoko bilkuran, publiko artetik banan-banan zutitu, euren izen-abizenak esan eta Lurgatz talde apartidista eta asanblearioa dela nabarmendu zuten. «Ni ere Pauli edo Maite naiz». Emakume horietako batek adierazi zuen: «Taldean ez dugu buruzagirik; inork ez nau agintzen, ezta gidatzen ere. Ez ni, ezta taldeko beste inor ere».

EH Bilduko zinegotzi Arantxa Lopezek ere emakume gisa parte hartzen du Lurgatzeko asanbladetan, horregatik «oso gaizki» iruditzen zaio udalak idatzi horretan bi emakumeren izena agertu izana. «Egoera honi irtenbidea eman behar zaio, udala ezin baita egon gauzak egiteko prest dauden herriko emakume batzuen kontra».

Udal gobernuaren izenean Ibon Ariznabarretak erantzun zien Lurgatz talde feministako kideei. «Oraintxe ez dugu aurrea egiteko modua ikusten. Egia da, giro txarra dago gure artean. Guk biltzeko proposamena egin

dizuegu eta zuek gezurra dela esaten badiguzue, zer espero duzue guk egitea?». Gogor erantzun zion Pauli Olano Lurgatzeko kideak: «Gezur batzuetan oinarritua zuen historia sortzen duzue eta gu iraindu eta gutxiesteko aprobetxatzen duzue egoera. Joko honek erakusten du zuen benetako aurpegia: mertzenario kaskar batzuk zarete eta pertsona gaiztoak. Amasar eta billabonatarrok ez dugu hau merezi».

Jarrera aldatzeko eta autokritika egiteko prest ote zeuden galdetu zien alkateak talde feministako kideei eta erantzuna jasotzerako plenoa bukatutzat eman zuen, hizketan hasia zen Lurgatzeko beste kide baten hitzak entzun gabe aretoa utziz.

Kide horrek azaldu zuenez, «udal gobernuaren prestutasun faltak eta feminismo faltsuak emakume oro iraintzen du». Beraz, elkarrizketekin jarraitu ahal izateko, «taldeko kide diren Pauliri eta Materi barkamenak eskatzea eta inposizioak alde batera uztea», eskatu dio udal gobernu taldeari Lurgatz talde feministak; eta horrekin batera proposamenak mahai gainean jartzea: «Guk batzuk jarri ditugu, zuen aldetik, ordea, ez dugu proposamenik jaso».

Aiztondo bailaran presoan aldeko deia, astelehenean

Erredakzioa Zizurkil

Aiztondoko Sare herritarrek manifestazioa antolatu du abenduaren 31n, 19:00etatik aurrera. Aduna, Alkiza, Amasa-Villabona, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo udalek babesa eman diote *Orain Presoak* lelopean Villabonan abiatu eta Zizurkilen amaituko den mobilizazioari.

Aipatutako udalek presoan urrunketa politikarekiko desadostasuna azaltzeko mozioa eztabaidatuko dute datozen astetan. Aurrez mozio hori ere onartua dute Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko batzar nagusiek eta sindikatuek ere babesa eskaini diote. Garai berriaren barruan, espetxe politika berri bat behar dela aipatzen da idatzian, «presoak zigorrek gizarte eta familia erroak dituen lekutik urrun be-

tetzea saihesten duen politika bat, zeinak erraztuko baitu bere senideekin harremana izatea, bere seme-alaba adingabeen ongizatera begira eta horiek gurasoekin egoteko duten eskubideen alde».

Mozio hori bera onartua dute dagoeneko Zizurkilen, EAJ eta EH Bilduko zinegotziek babestu zuten testua. Alkizan, Adunan, Larraulen, Asteasun eta Amasa-Villabonan urtarileko osoko bilkuretan onartuko da mozioa. Aiztondoko Sare herritarrek jakinarazi duenez, Amasa-Villabonako Udalean ordezkari izango du adierazpenak.

Mozioarekin batera, Aiztondoko sei udalek, astelehenean, Villabonatik Zizurkilera egingo den manifestaziora joateko deia luzatu diete herritarrei.



lazko manifestazioaren irudia, Zizurkildik Villabonarako bidean. A. IMAZ

Jakinarazi dituzte Gabonetako zozketen zenbakiak

ABALTZISKETA // Txalburu eskolako guraso elkarteak egin ditu Gabonetako zozketak. Saskiaren zenbakia 1623 da eta zenbaki hori daramanak eramango du etxera otarra. Guraso elkarteak asteburu pasa bat ere zozkatu du eta 1100 zenbakiarentzat izan da saria. Bukatzeko, Abaltzisketa bertako Ermentañe jatetxean otordu bat ere oparitan eman dute aurten eta sariduna, kasu honetan, 1152 zenbakia izan dela jakinarazi dute.

Mendi irteerak antolatzen jarraitzeko laguntza eskatu dute

ALEGIA // Alegiako Mendi Asanbladak laguntza eskatu du datorren urtean ere mendi irteerak antolatzen jarraitzeko. Bost euroko ekarpena eginez, 2019ko mendi irteeren egutegia banatuko dute. Asanbladatik azaldu dutenez, «batzordekideei zuzenean dirua emanez edo herriko tabernetan egin daiteke ekarpena». Bildutakoa, taldeko segurua, kartelak eta abar ordaintzeko izango direla azaldu dute Alegiako Mendi Asanbladatik.

Errigorako lau kaxetatik hiru banatu dira dagoeneko

IKAZTEGIETA // Azken urteotan egin moduan, udalak etxeetara banatzen dituen egutegiekin zenbaki bana izaten dute, zozketan parte hartzeko. Eskolako haurrek atera zituzten zenbaki sari-dunak, eta dagoeneko Errigorako bi kaxa zuriak, 193 eta 131 zenbakidunak, eta kaxa beltz bat, 034 zenbakiduna, banatu dituzte. Beste kaxa beltza, 148 zenbakiduna, falta da jasotzeko. Honen ordezkoko zenbakia 048 dela jakinarazi dute.

DANOBATGROUP

GOIMEK

LAN ESKAINTZA: FRESATZAILE MANDRINATZAILEA

FUNTZIOAK:

· Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorrek makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketan eta baita akaberakoetan esperientzia izatea ere.

ESKAKIZUNAK:

- Titulazioa: Goi mailako heziketa zikloa, Mekanizazio Bidezko Produkzioa edo baliokidea.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanpostu batean.
- CNC menperatzea, eta Heindenhein ezagutzea baloratuko da.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko eta harremanetarako gaitasuna.
- Egiaztapen tresnak (Alexometroak, mikrometroak, etab) erabiltzen jakitea.

ESKAINTZEN DA:

- Berehalako lanean hastea.
- Esperientziaren eta gaitasunen arabera soldata.

EPEA: 2019ko urtarrilaren 11 baino lehen.

Interesa dutenek, Giza Baliabideen Departamentura bidali dezakete beraien Curriculum: ecarballo@soraluce.com

Hondakinen kalitatea hobetu asmoz, kanpaina

Materia organikoaren gaikako bilketa hobetzeko, edukiontzi marroietan eranskailuak jarri dituzte; Ibarra, ikuskapen lanak egiten ari dira

Irati Saizar Artola Herria

Tolosaldeko Mankomunitatearen arabera, eskualdean gaikako bilketa %64koa da. Tasa «adierazgarria» dela nabarmendu du, baina zer hobetua bada goela esan du: «Une honetan, hobeto sailkatzea eta birziklatzea da mankomunitatearen helburua eta, batez ere, edukiontzi marroian jasotako hondakinarena azpimarratu nahi dugu». Horretarako, Ibarra, Iruera, Tolosa eta Villabonako edukiontzi marroietan eranskailuak jarri dituzte, eta erabilpena ikuskatzeko kanpaina burutuko dute.

Izan ere, mankomunitateak azaldu duenez, «oraindik herriarren ehuneko txiki batek, poltsak lurrean, edukiontzien aldamenean uzten ditu, ez du ondo bereizten eta arrisku larrian jartzen du gainerakoen ahalegina». Haien helburua ehunekoa handitzea eta kalitatezko birziklatzea lortzea da.

Eranskailuen bidez, beraz, honakoa gogorarazi nahi diete herritarrei: «Hondakin organikoak poltsa konpostagarrietan utzi behar dira, inoiz ez plasti-

kozko poltsetan. Udalak doan banatzen ditu poltsa konpostagarriak. Bestetik, pixoihalak ez dira edukiontzi marroian utzi behar, inoiz. Eta azkenik, iraungitako elikagaiak edukiontzi marroian utzi behar dira, baina lehendabizi ontzia edo bilgarria kendu behar zaizkie. Edukiontzi marroian, beraz, materia organikoa bakarrik utzi behar da».

IKUSKAPENA, IBARRAN

Tolosaldeko Mankomunitateko hezitzaileak Ibarra, Iruera, Tolosa eta Villabonako edukiontzi marroietan botatako hondakinen ikuskapen lanak egingo ditu. Hala, era desegokian atzemandako hondakinen jatorria identifikatzen saiatuko dira, eta hondakinen sailkapen egokia egiteko informazioa zabaltzea izango du helburu.

Ikuskapen lan horiek auzoka egiten hasi dira. Atarietan banda itsatsi da, ekintzaren berri emanez, eta bertan edukiontzi jakin bakoitzean denbora tarte desberdinetan sumatutako oharra adieraziko dituzte. Era berean, edukiontzien erabiltzaileei, behar den kasuetan, ohartarazpen orriak bidaliko zaizkie informazioa emanez.

Alkoholismoari buruzko bilera irekia, gaur, Tolosan

TOLOSA // Tolosako Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak, bigarren aldiz irekia egingo du gaur, Kondeko aldapan dagoen Corpus Christiko aretoetan, 19:30ean hasita, alkoholismoaren eta bere ondorio eta irtenbideen inguruan hitz egiteko. Alkoholismoari buruzko informazioa eskuratu nahi duen pertsona edo senide oro ongietorria izango dela adierazi dute taldekoek.

Urepele Elkartearen urteurrena ospatuko dute igandean

BERASTEGI // Hamabost urte beteko ditu Berastegiko Urepele Elkartek abenduaren 30ean. Egun guztiko egitaraua antolatu dute. 08:30ean Urepele mendira egingo dute irteera. Ondoren, 12:30ean, potea egingo dute herrian zehar, eta bazkaria izango dute jarraian lehengo, oraingo eta etorkizuneko bazkideekin. Arratsaldean, argazki zaharrak ikusteko tarte hartuko dute 18:00ak aldera, eta 20:00etan Kilimak taldeak kontzertua eskainiko du. Luntxari emango diote pasoa jarraian, eta ospakizun eguna DJ Toxorekin boroilduko dute.

Ohiturei jarraituz, urtarilaren lehen Ipuliñora igotzea

BERASTEGI // Urte asko daramatzate berastegiarrek urte berri egunean Ipuliñora mendira igotzen. Gailurrean xanpainarekin ospatu ohi dute urte berriaren etorrera eta urtez urte, jende gehiago animatzen da. Aurten ere, asmo bera dute Aldin Mendi Elkartekoek. 09:00etan Basurde Elkartean geratu dira.



SARI POTILOAK, ESKURA

Ibarra, Iruera, Tolosa eta Villabonako edukiontzi marroietan botatako hondakinen ikuskapen lanak egingo ditu. Hala, era desegokian atzemandako hondakinen jatorria identifikatzen saiatuko dira, eta hondakinen sailkapen egokia egiteko informazioa zabaltzea izango du helburu.

Gabonetako aisialdi plan berezia, Berrobin

Irati Saizar Artola Berrobi

Opor hauek herrian aprobetxatu nahi dituenak, badu aukera Berrobin. Ia egunero dute zerbaitegiteko, izan kirola, tailerra edota jolasa. Gaur bertan, 18:00etan hasita belaunaldien arteko Laster Chef tailerra daukate Bide-ona elkartean. Aiton-amonek plater goxoak prestatzen erakutsiko dizkiete gaztetxo eta haurrei. Jarraian, dastatzea egingo dute. Bihar arratsaldean, patinaje ikastaroa izango da eskolako estalpean, 18:30ean.

Urte amaitzeko, berriz, bizikleta itzulua egingo dute Balia-

rraingo Ibiur urtegi, eta bitartean, txikieneko psiko-saltoa izango dute 10:00etan hasita.

2019. urtea behar bezala hasteko, Uzturrera egingo dute ibilaldia 09:00etan, eta ondoren, haurrentzako izango dute. Urteari-aren 2an, berriz, margotzea, papiroflexia eta buztinarekin eskulanak egitea aurreikusita dute. Hurrengo egunean, Iruñeako Salting parkera egingo dute bidaia. 14:00etan abiatuko dira, eta 5 euro ordaindu beharko dituzte bakoitzak. Azkenik, urtarilaren 4erako, karting-eko kotxeak-pedalezkoak eta gasolinazkoak-eramango dituzte.

PROBA EZAZU KORTEKO

TURROI

TRADIZIONALA

RAFA GORROTXATEGIEN ERARA EGINDA

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus

Tolosan, salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 1

Merezitako oporrak



Harmailetatik

Javier Jauregi
Tolosa CF, Euskal Liga

Eguberri aurreko azken larunbata zen eta gure neskek urteko azken partida zuten eta baita lehen itzulikoa ere, Gasteizko Aurreraren aurka. Ondo bukatu nahian eta lehen itzulia ondo bukatzeko asmoz, partida hasi eta bosgarren minuturako 2-0 aurreratu ziren markagailuan Izaroren bi golekin. Nabari zen bai batzuk oporrak azkar hartu nahi zituztela!

Usabal gainezka zegoen, antolatuta zeuden kirol desberdinekin. Aparkalekuan ez zen kotxe gehiagorik sartzen eta beraz kotxez etorri zirenak urrutira joan behar izan zuten aparkatzera. Galdetu bestela Izaroren gurasoei, berandu iritsi eta alabaren bi golak ikusi gabe geratu baitziren. Beraz, badakizu Izaro, hurrengo partidaren golak sartzea tokatzen zaizu gurasoek ikusi ahal izateko!

Partida aurrera zihoan, eta oraindik asko gelditzen zen. Ordu erdi pasa zenean iritsi zen hirugarrena. Baloiak sareratu nahi ez zuela ematen zuen, izan ere, Bengolek gola sartu aurretik bi aldiz jo baitzuen langan, eta 0-3 irabazten joan ginen atsedenaldira. Atsedenaldia eta gero, gasteiztarrek presio handiagoarekin atera zirela ikusi zen, eta gure neskak baloi asko galtzen hasi ziren. Minutu ero batean, Aurrerak bi gol sartzea lortu zuen, eta ondorioz, urduritasuna nabari zen harmailetan.

Partidak aurrera jarraitu zuen eta ezker aldetik egindako jokaldi batean, zelaira sartu berria zen Leirek, area barruan jokaldia egin ari zela *piszinazoa* egin eta penaltia gure alde. Leire berak jaurti zuen, eta lasaitzeko 4-2 jarri zuen markagailuan (lasai Leire, penalti garbia izan zen, ez daukazue maliziarik lurrera botatzeko eta!).

Horrela bukatu zen partida. Onena hiru puntuak etxean geratu zirela izan zen, eta horrela lehen postuetan jarraitzeko aukera dugu. Orain merezitako oporrak. Ondo pasa eta gozatu!

Eizmendi, nagusi Asteasun

Harri Handien Txapelketa irabazi du Jokin Eizmendik; Iban Ugartemendia bosgarren izan da

Erredakzioa Asteasu

Sei harri-jasotzaile aritu ziren Euskal Herriko Harri Handien txapelketan Asteasun, eta Jokin Eizmendik jantzi zuen txapela. Iban Ugartemendia hernaldearrak bosgarren amaitu zuen.

Aimar Irigoien errezildarrak ez zuen parte hartu lesio bategatik, eta Jokin Eizmendi zarrautzarrak nagusitasun handia erakutsi zuen, guztira 7.150 kilo jaso. Bigarrena Jon Unanue Goenatxo III.a azkoitiarra izan zen, 5.125 kilo altxatuz; hirugarren

Imanol Illarramendi Kortaberri aiarra izan zen, 5.100 kilorekin; laugarren postua Aimar Galarra ga oriotarrantzat izan zen, 4.600 kilorekin; bosgarren Iban Ugartemendia hernaldearra izan zen, 3.875 kilorekin; seigarren postua txapelketan debuta egin duen Julen Diaz arabarra izan zen, 2.775 kilorekin.

Telebistatik zuzenean eskaini zuten txapelketa, eta ring baten itxura eman zioten lehiaketari. Jende ugari elkartu zen frontoian ikuskizuna bertatik jarraitzeko.

ABENDUAREN 31N, GEHIAGO

Herri kirolen saio erakargarria izango da abenduaren 31n, Asteasuko frontoian, 17:00etatik aurrera. Batetik, Urrezko Aizkolari Koparen finala jokatu da.



Harri Handien Txapelketaren sari banaketa. IBONERRAZU

Ibarran bizi den Xabier Orbegozo Arria V.a izango da bertan, eta aurkari Mikel Larrañaga eta Iñaki Azurmendi izango ditu.

Bestetik, Gabonetako Harri-jasotze Sarian Xabier Peña, Inhar

Urruzuno eta Imanol Albizu *Goi-koetxe* izango dira lehian. Azkenik, Gabonetako Emakumeen Ingude Kopan, Maika Aristegi, Virginia Finol eta Karmele Gisasola ariko dira nor baino nor.

Artolarentzat izan da puntua

Artola eta Mariezkurren II.ak 17-22 irabazi diote Altuna III.a eta Martijari

Erredakzioa

Eskuz Binakako Pilota Txapelketan, eskualdeko bi aurrelarien arteko norgehiagoka jokatu zen asteartean. Artola alegiarrak Mariezkurrenarekin batera 17-22 irabazi zien Altuna III.a amezketarrari eta Martijari. Hori horrela, Artola eta Mariezkurren laugarren postuan doaz, hiru garai-

pen eta bi porrotekin. Altuna eta Martija seigarren daude, bi garaien eta hiru porrotekin.

Hurrengo jardunaldian, Artola eta Mariezkurren Elezkano II.a eta Rezustaren aurka lehiatuko dira, larunbatean, Etxebarrin. Altunak eta Martiak Olai-zola II.a eta Albisu izango dituzte aurkari, datorren asteartean, Eibarren.


PEBET MEMORIALAREN FINALA

Villabonako Behar Zana elkarteak antolatzen duen VII. Pebet Memorialaren finala jokatu da larunbat honetan, Berhazana pilotalekuan, 17:30ean.

Aurretik, gaur goizean, eta Behar Zana elkarteak antolatuta ere, Gabonetako Pilota Topaketa egingo dute. 80 neska-mutil inguruk, 50 partidatik gora jokatu dituzte eskuz, palaz zein joko garbian. 10:00etan hasiko da topaketa, Oria Merkatarien Elkartearen babesarekin, eta herrian dauden barraketan aritzeko oparitxoak izango dute pilotariak. Ondorengo taldeetako pilotariak parte hartuko dute Gabonetako Pilota Topaketan: Villabonako Behar Zana, Adunako Txulobi, Zizurkilgo Ziotza, Donostiako Alde Zaharra eta Angeluko Har-doytarrek.

MIGEL SOROA MEMORIALA

Igande honetan Migel Soroa Memorialean finalerdietarako azken txartelak banatuko dira, Tolosako Beotibar pilotalekuan, 16:30etik aurrera. Etorkizunekoetan Julen Alberdik (Gazte Leku) eta Olidenek (Añorga) Murua-Garcia (Bergara) bikotea izango dute aurrean. Bigarren partidaren elite mailan, Ioritz Egiguren (Zazpi Iturri)-Sarasa (Buruzgain) bikotea Elola (Tolosa)-Aldave (Oberena) bikotearen aurka ariko da, eta hirugarrenean, Eneko Labaka (Tolosa)-Bikuña (Antiguo), Salaberria (Erreka)-Ota-duyren (Olaburu) aurka.



HASI DIRA PILOTA TOPAKETAK

Parte hartzaileen argazki saioak eman zion hasiera atzo, Gabonetako Pilota Topaketei. 75 pilotari inguru ariko dira bertan. Atzo eta gaur sailkatze partidak dituzte Alegian, Altzon, Amezketan eta Ikaztegiatan. Larunbatean jokatu dituzte finalak, 16:00etatik aurrera, Alegiako Elorri pilotalekuan. I.G.L.

«Europa Iparraldekoekin alderatuz, normalean atzetik ibiltzen gara»

MIKEL PLAZAS
ESKIATZAILEA

Hemezortzi urte dituen eskiatzaile berastegiarra gustura dago Europa mailako lasterketan lortu berri dituen emaitzekin.

Imanol Garcia Landa Berastegi

Mikel Plazas (Berastegi, 2000) eskiatzaileak Espainiako selekzioarekin parte hartu du Europa mailako iraupen eskiko probetan aurreko bi asteburuetan.

Espainiako selekzioarekin lehiatu zara Europa mailako lehiaketetan. Nola iritsi da aukera hori?

Italian azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean eta 2an sailkapen probak izan genituen. Hor postua lortu nuen, eta Espainiako selekzioak Europako Kopan parte hartzeko aukera eman zигun.

Suitzan eta Italian lehiatu zara. Zein izan dira emaitzak?

Suitzan Campran lehiatu nintzen, eta esprintean hamabosgarren postuan sailkatu nintzen, baina final laurdenak espero baino okerrago atera zitzaizkidan eta ez nuen finalerdietarako sailkatzea lortu. Baina gustura nago egindakoarekin. Hamar kilometroko proban nahiko gustura ibili nintzen eta 42. postua egin nuen sailkapen orokorrean. Junior mailan, aldiz, 28. postua lortu nuen. Italian, Valdidentron, Europako Kopako txapelketan,

junior mailan, esprintean ez genuen sailkatzea lortu, baina gustura nago lortutako 61. postuarekin; skatineko hamar kilometroko 62. postuarekin ere oso gustura nago; eta 15 kilometro dituen proba klasikoan 72. postua lortu nuen. Karrera txarra izan zen. Orokorrean gustura aritu nintzen, asteburu polita izan da.

Zein izaten da zure erronka horrelako probetan?

Espainiako selekzioarekin joaten garenen artean lehenengoa postua lortzea izaten da asmoa, eta gero orokorrean ahal den postu onena lortzea.

Lehenengo urtea da parte hartzen duzula Espainiako selekzioarekin?

Aurreko urtean ere egin nituen pare bat irteera. Bestela, uda aldean talde askok batera entrenatzen dugu, kataluniarrekin eta Aragoiokoein aritzen gara, eta Espainiako hautatzailea ere etortzen da, talde giroa sortzeko.

Eta zer suposatzen du zuretzat Europa mailako txapelketetan parte hartzea?

Azkenean kanpoan lehiatzea da, eta ahal dela hobetzen joatea. Egun Imanol Rojo tolosarra

Munduko Kopan lehiatzen da, eta ea egunen batean guk hori lortzen dugun. Olinpiar Jokoetara iristen bagara, askoz hobeto, hori guretzako geldituko baita azkenean.

Eta zer moduz moldatzen zarete European Espainiako selekzioarekin joaten zaretenak?

Europa Iparraldeko herrialdekoekin alderatuz, normalean atzetik ibiltzen gara, baina aurten oraingoz ateratzen ari garen emaitzak ez dira hain txarrak. Ni behintzat gustura nago, eta beste bi edo hiru kide postu hobeagoak lortzen ari dira, eta ez da txarra, egia esan. Noski, Europa Iparraldekoak, norvegiarrak-eta, askoz hobeto ibiltzen dira, eta italiarrak ere sekulako maila dute.

Junior mailan lehiatzen zara. Nola dago mailakatua?

Bi junior maila daude. Lehenengo juniorrak 16tik 18 urte bitartekoak dira. Besteak 18tik 20 urte artekoak dira. Bigarren talde horretan ari naiz ni, lehen urtea dut.

Eta nola moldatzen zara?

Bada ohitzen joan behar gara, laster maila absolutuan sartuko garela eta hor 30 urtekoekin-eta lehiatzen hasi beharko dugulako.



ATARIA

Eta Europako proba horiek bukatu eta gero, zein beste proba dituzu denboraldi honetarako?

Hurrengo proba gehienak Espainia mailan izango dira, eta nire esperantza da podiumean sartzea, aurreko urtean baino gehiago, behintzat.

Aurreko denboraldian zer emaitza lortu zenituen Espainiako Txapelketan?

Klasiko proban laugarren geratu nintzen, eta eskatinekoan hiru garren egin nuen. Gero Kopa izeneko lehiaketa izaten da. Karretan egindako emaitzekin lortutako sailkapena izaten da. Eta orokorrean eta esprintekoan lehen postua lortu nuen.

Eta hurrengo Espainiakoan zein da zure asmoa?

Ea aurreko urtean baino hobeto egiten dugun. Azkenean bost edo sei izaten gara segundo gutxitan sartzen garenak, eta lehia hori izaten da.

Nola sartu zinen eskiaren munduan?

Txiki txikitatik sartu nintzen; gurasoek sartu ninduten. Beraiei gustatzen zitzairen, eta nire

arriba eta niri, hazten joan garen heinean, gustatu egin zaigu eta beti jarraitu izan dugu. Urtero-urtero eskiatzera joaten ginen eta ez dugu utzi. Ez naiz gogoratzen noiz hasi nintzen zehazki lehiaketetan parte hartzen; nahiko txikitan izango zen.

Eta beste kirolik praktikatzen duzu?

Beste kirolak praktikatzeko garaia uda aldea izaten da. Normalean korrika aritzen naiz, bizikleta ere asko egiten dut, baina gehiena rolleskia izaten da. Eskiaren berdina da, baina errepi-dean ibiltzeko. Eski batzuk baino txikiagoak dira eta gurpilak dituzte aurrean eta atzean. Errepidean, portuak igotzen-eta aritzen gara.

Imanol Rojo aipatu duzu lehen. Berarekin elkartzen zara entrenatzeko?

Egia esan Imanol normalean kanpoan izaten da, baina etxean dagoenean, eta posible bada, gustatzen zait berarekin entrenatzea. Bera da oraintxe Munduko Kopan lehiatzen ari dena, eta guretzako eredu bat da.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



**Manoli Zabaleta
Olaskoaga**

*Une latz hauetan
bat egiten dugu,
duela gutxi hil zen
Manoliren familiaren saminarekin.*

Elduaingo udal taldea

ELDUAIN, 2018ko abenduaren 27an



**Teresa Goena
Garcandia**

2017ko abenduaren 23an hil zen, 88 urte zituela

*Bizitzaren bidean
bihotzaren goxoan
bildu izan gara.
Orain, eta beti,
hala izan dadila.
Muxu goxoak.*

TOLOSA, 2018ko abenduaren 27an



OSTEGUNA, 2018KO ABENDUAK 27
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 27

AGENDA

Deialdiak

Ibarra. *Beldartxo jatuna* antzezlan, gaur, 17:00etan, kultur etxean.
Anoeta. Hilekoaren inguruko tailerra gaur, 17:00etan, Gaztetxean, Neguko Solstizioaren egitarauaren barruan.
Irura. *Kalean otso etxean* usoikuskizuna gaur, 17:30ean, kultur etxean.
Tolosa. *Entre dos aguas* filma gaur, 19:15ean eta 21:45ean, Leidorren.
Berrobi. Laister Chef taller intergenerazionala Bide-Ona elkartearen, gaur, 18:00etatik 20:00etara. Ondoren, afari merienda ikastaroan presatutakoarekin.
Amasa-Villabona. Errusiar balleta gaur, 19:30ean, Gurea antzokian.
Tolosa. Alkoholiko anonimoen bilera gaur 19:30ean, Corpus Christiko aretoan (Kondeko aldapa).
Amezketeta. Nerabeei zuzendutako Frontenis Txapelketa, bihar, 10:00etatik aurrera, Larrunarri pilotalekuan.
Aduna. *Peru eta Otsoa* antzezlan bihar, 12:00etan.
Ibarra. Magia eta marrazki bizidunak uztartzen dituen *Musika galduaren bila* antzezlan, bihar, 17:00etan, kultur etxean.
Tolosa. Sun magoaren *Magic Espectacular* ikuskizuna, bihar, 17:00etan, Leidor antzokian.
Anoeta. Gaztetxearen Neguko Solstizioa egitarauaren barruan, bihar: Kaleko doinuak proiektuaren aurkezpena 17:00etan, Gaztetxean; *Azken arnasa arte* dokumentala, udaletxean, 18:30ean, eta TPR, Eztena eta Koltx-Oll taldeen kontzertuak 23:00etan. Udaletxeko Eguberrietako egitarauaren barruan, bihar: 19:00etan Mikelasa-gasti auditorioan Kukuak Kantuz taldearen kontzertua, eta frontoian Kuku Pilota Elkartek antolatutako Gabonetako Pala Txapelketako finalak, eta 19:30ean elkarretaratzea *Euskal presoak Euskal Herriralelepean*.
Amasa-Villabona. *Animales fantásticos y...* filma bihar, 19:00etan eta 22:00etan, Gurea antzokian.
Tolosa. *Bohemian Rhapsody* filma bihar, 20:00etan eta 22:30ean, Leidorren.
Tolosa. Anita Parker eta La Furiaren kontzertuak Bonberenean, bihar, 22:30an.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Rosalia Morant Barber. Zabalarreta Lorategiak 1. Telefono zenbakia: 943 67 38 49.
Gauekoa. Rosalia Morant Barber. Zabalarreta Lorategiak 1. Telefono zenbakia: 943 67 38 49.

EGURALDIA

GAUR  **14° / 3°**

BIHAR  **16° / 3°**

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

Zubimusuko ikasleak ere egon dira 'Ataria'n

Villabona eta Zizurkilgo ikastolako gazteak izan dira 'Tolosaldeko Ataria'n, kazetaritza lanen inguruko informazioa jasotzen

Erredakzioa Tolosa

Erakutsiz ikasi ekimenaren bigarren geldialdian Villabona eta Zizurkilgo Zubimusu ikastolako gazteak izan dira protagonista.

Ohi bezala TOLOSALDEKO ATARIAKO erredakzioa ezagutzeko aukera izan dute eta bertan kazetaritzaren inguruan sakontzeko aukera izan dute. Era berean, ATARIA IRRATIAKO *Pasahitza* saioan parte hartu dute.

Izan ere, TOLOSALDEKO ATARIAK bere jarduna gerturatu nahi die eskualdeko haur eta gazteei *Erakutsiz ikasi* proiektuaren eskutik.



Zubimusu ikastolako gazteek hartu dute parte 'Erakutsiz ikasi' ekimenean. R.C.



Erredakzioa ezagutzaz gain, 'Ataria Irratia'n parte hartzeko aukera izan zuten gazteek. I.S.



Ataria bertso jaialdia

Maialen Lujanbio Andoni Egaña Amets Arzallus

Oihana Iguaran Nerea Ibarzabal Haritz Mujika

Gai jartzailea
Amaia Agirre

2019

Urtarrilak 19,
larunbata, 19:00etan
Tolosako
Leidor antzokian

Sarrerak Atarikideentzat 10€

Zure sarrerak hartzeko Atariaren bulegora etorri, gehienez bi sarrera bakoitzeko:

Abenduak 17, 18, 19 eta 20an
12:00etatik 19:00etara.

Abenduak 21 eta 27an
09:00etatik 13:00etara.

San Esteban 20, Tolosa